

79

**Musika
Hamabostaldia**

**Quincena
Musical**

**Donostia
San Sebastián**

**Abuztua 2
Agosto -
Iraila 1
Septiembre
2018**

“Amoria”

Kursaal Auditorioa Abuztua 29 Agosto



Egitarauari buruzko oharra / Notas al programa: *Jon Bagüés*

Topaketako denborak eta espazioak

Katia eta Marielle Labèque ahizpek beren sorteria, Euskal Herria, omentzeko osatu duten programa baten gisa aurkezten da “Amoria”, kultura zabal eta ugari bat agertzeko asmoz, denboran zehar hainbat eratako hots-paisaietan gauzatu dena. Euskal musikan barna egindako ibilaldi baten aurrean gaude; XVI. mendean hasten da eta gure egunetaraino heltzen da, eta, inondik ere lineala izan gabe, topaketako denboren eta espazioen gurutzebidea bihurtzen da.

Kronologian eta hurrenez hurreneko joera estetiko musikalen koloretan neur daitezke denbora horiek: Johannes de Antxieta, Errenazimentetik, Bernardo Zala Galdeanoren barrokotik, Pablo Sarasateren erromantizismotik, Aita Donostiaren, Jesús Guridiren edota Gabriel Olaizolaren abertzaletasunetik, Maurice Ravelen inpresionismotik igaroz, heldu arte Alberto Iglesias, Harkaitz Martínez de San Vicente edota Thierry Biscaryren gaurkotasunera.

Amodioaren denborak, betiko ezdenbora: amaren amodioa, amodio atsekabetuak...; zortzikoen, boleroen, zarabandaren, ariñ-ariñaren eta fandango denborak.

Generoen espazioak, genero erlijiosoa, baladak, laneko abestiak...; kanpoko eta barneko erbesteak, Argentina urrunekoa mutur batean (Saski-Naski) eta agoteen gertukoa bestean...; letren espazioak dira azkenik, euskara, espainola, frantsesa, hebreera eta arameoarena, euskal kulturaren esparrutik eta esparru horretan bertan eraturiko tradizioen eta sorlanen erakusgai eta igorleak.

Tiempos y espacios de encuentro

“Amoria” se presenta como un programa ofrecido por las hermanas Katia y Marielle Labèque en homenaje a su lugar de origen, el País Vasco, y una cultura múltiple generada a través de los tiempos en forma de diversos paisajes sonoros. Estamos ante un recorrido por la música vasca desde el siglo XVI hasta nuestros días dando sentido a una idea que, lejos de ser lineal, se transforma en una encrucijada de tiempos y espacios de encuentro.

Tiempos medibles en la cronología y en los colores de las sucesivas corrientes estéticas musicales, desde el renacimiento de Johannes de Antxieta, pasando por el barroco de Bernardo Zala Galdeano, el romanticismo de Pablo Sarasate, el nacionalismo de Aita Donostia, Jesús Guridi o Gabriel Olaizola, el impresionismo de Maurice Ravel hasta la contemporaneidad de Alberto Iglesias, Harkaitz Martínez de San Vicente o Thierry Biscary.

Tiempos de amor, el atemporal eterno, amores de madre, amores contrariados...; tiempos de ritmos, zortziko, bolero, zarabanda, ariñ-ariñ o fandango.

Espacios de géneros, desde el religioso a las baladas o las canciones de trabajo; espacios de exilios e insilios, desde la lejanía en Argentina (Saski-Naski) a la cercanía de los agotes; espacios finalmente de letras, euskera, español, francés, hebreo y arameo, definitivas exponentes y transmisoras del encuentro de tradiciones y creaciones en y desde el ámbito de la cultura vasca.

“Amoria”

Katia & Marielle Labèque, pianoforte eta pianoa

Carlos Mena, kontratenorra

Elena Martínez de Murguía, da gamba biola

Hegiak: Thierry Biscary, Harkaitz Martínez de San Vicente, Mikel Ugarte, Eñaut Elorrieta, Ander Zulaika, ahotsak eta perkusioa

Easo Eskolania eta Araoz Gazte Abesbatza (Gorka Miranda, abesbatza zuzendaria)

I

Johannes Antxieta (1462-1523)

CON AMORES LA MI MADRE

Bernardo Zala Galdeano (1675-?)

SARABANDA

Balere Artxu Idiart (1780-?) (Arreglos: Francisco Ibáñez)

AGOTA

José Gonzalo Zulaika “Aita Donostia” (1886-1956)

OÑAZEZ

Jesús Guridi (1886-1961)

DESKALABRATUA NAIZ (ELEGIACA)

Maurice Ravel (1875-1937)

DEUX MÉLODIES HEBRAÏQUES

Kaddish

L'enigme éternelle

Alberto Iglesias (1955)

DISCRET CHARME AUX ARBRES

Anónimo

TONO AL NACIMIENTO DE NUESTRO SEÑOR JESUCRISTO

Gabriel Olaizola (1891-1973)

HAURTXOA SEASKAN

Jesús Guridi

AVE MARIA

II

Anónimo

HAIKA MUTIL

Pablo Sarasate (1844-1908)

PRIÈRE OP. 17

**Pierre Bocardarre «Etxahun iruri»
(1908-1979)**

DE TREVILLEN AZKEN HITZAK

**Harkaitz Martínez de San Vicente
(1975) / Mikel Ugarte (1973)**

BATERAN

Thierry Biscary (1976)

ELURRA IRUÑAN

100 ALARGUNEN DANTZA

Anónimo

ARGAZAZI EDERRA

Maurice Ravel

BOLERO

Babeslea / Patrocina



Abuztuan zehar, San Telmo Museoak hartzen duen “Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak” erakusketarako sarrera doan izango du Musika Hamabostaldiaren “Mitoa eta Tradizioa” zikloko kontzerturen baterako sarrera erakusten duen bisitariak

Durante el mes de agosto, el acceso a la exposición “Arte y mito. Los dioses del Prado” que acoge el Museo San Telmo será gratuito presentando la entrada de alguno de los conciertos de Quincena englobados bajo el título “Mito y Tradición”



Katia eta Marielle Labèque

Labèque ahizpek kontraste musikal zorrotza dute, eta ondo uztartutako bikotea osatzen dute. Munduko orkestra ospetsuenekin jo dute, besteak beste: Berlingo Filarmonikoa, Bavariako Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Boston, Chicago eta Londresko sinfonikoak, Clevelandeko Orkestra, Leipzigekeko Gewandhausorchester, Londres, Los Angeles eta La Scalako filarmonikoak, Filadelfiako Orkestra, Dresdengo Staatskapelle, Royal Concertgebouw Orchestra eta Vienako Filarmonikoa. Maila handiko zuzendariekin jardun dute, hala nola Bychkov, Sir Colin Davis, Dudamel, Dutoit, Gardiner, Hart Bedoya, Kristjan eta Paavo Järvi, Mehta, Ozawa, Pappano, Prêtre, Rattle, Salonen eta Tilson Thomas.

Musika barrokoko taldeekin jardun dute lankidetzan: The English Baroque Soloists, Sir John Eliot Gardinerekin; il Giardino Armonico, Giovanni Antoninirekin; Ensemble Musica Antiqua Köln, Reinhard Goebelekin; Venice Baroque, Andrea Marconekin; eta bira bat Orchestra of the Age of Enlightenment eta Sir Simon Rattlerekin. Musikagile askorekin lan egiteko pribilejioa izan dute, hala nola Adès, Andriessen, Berio, Boulez, Glass, Golijov, Ligeti eta Messiaenekin. 2015eko maiatzaren 26an Philip Glassen Kontzertua bi piano eta orkestrarentzat (beraientzat osatua) munduko estreinaldia interpretatu zuten, Los Angeleseko Filarmonikoarekin eta Dudamelekin. 2018an eta 2019an beraientzat osatutako B. Dessner eta N.Muhlyren beste kontzertu batzuk estreinatuko dituzte.

Las hermanas Labèque muestran un agudo contraste musical y forman un dúo bien compenetrado. Han tocado con las orquestas más prestigiosas del mundo: Filarmónica de Berlín, Orquesta Sinfónica de la Radio de Baviera, las sinfónicas de Boston, Chicago y Londres, Orquesta de Cleveland, Gewandhausorchester de Leipzig, las filarmónicas de Londres, Los Ángeles y la Scala, Orquesta de Filadelfia, Staatskapelle de Dresde, Royal Concertgebouw Orchestra y la Filarmónica de Viena; con directores como Bychkov, Sir Colin Davis, Dudamel, Dutoit, Gardiner, Hart Bedoya, Kristjan y Paavo Järvi, Mehta, Ozawa, Pappano, Prêtre, Rattle, Salonen y Tilson Thomas.

Han colaborado con grupos de música barroca como The English Baroque Soloists, con Sir John Eliot Gardiner; il Giardino Armonico, con Giovanni Antonini; Ensemble Musica Antiqua Köln, con Reinhard Goebel; Venice Baroque, con Andrea Marcon; y realizaron una gira con la Orchestra of the Age of Enlightenment y Sir Simon Rattle. Han tenido el privilegio de trabajar con numerosos compositores, como Adès, Andriessen, Berio, Boulez, Glass, Golijov, Ligeti y Messiaen. El 26 de mayo de 2015 interpretaron el estreno mundial del Concierto para dos pianos y orquesta de Philip Glass (compuesto para ellas) junto a la Filarmónica de Los Ángeles y Dudamel. Otros conciertos de B. Dessner y N.Muhly, también compuestos para ellas, serán estrenados en 2018 y 2019.



Carlos Mena

R. Levitt eta R. Jacobs-ekin ikasi zuen Schola Cantorum Basiliensis-en. Bakarleri gisa maisu handien aginduetara jardundu, hala nola M. Corboz, P. Goodwin, M. Minkowsky, R. Frübeck de Burgos, O. Dantone, J. Mena, G. Leonhardt, C. Coin, P. Goodwin eta A. Marcon. Hainbat jaialdi eta aretotan eskaini ditu emanaldiak, besteak beste: Vienako Musikverein eta Konzerthaus, Londresko Barbican Center, Bruselako Palais de Beaux Arts, Salzburgoko Felsenreitschule eta Grosses Festspielhaus, Berlingo Philharmonie, Amsterdameko Concertgebouw, Tokioko City Opera Hall, Osaka Shympony Hall, Los Angelesko Schönberg Hall, New Yorkeko METeko Alice Tully Hall, Washingtoneko Kennedy Center eta Library of Congress, Sidney Opera House, Melbourneko Concert Hall, Mexiko Hiriko Arte Ederrak eta Buenos Airesko Colón Antzokia.

40 lan baino gehiago grabatu ditu Harmonia Mundi, Mirare, Deutsche Gramophon, Sony Music eta Glossa diskoetxeentzat, eta hainbat sari irabazi ditu horiekin, hala nola, Diapasón D'Or de l'année 2002, CD Compacten Errenazimentuko Diskorik Onena 2004, Clásica, 10 Repertoire, Choc de Le Monde de la Musique, Excepcional de Scherzo eta Teleramaren ffff. Liedaren erreperitorioa eta erreperitorio garaikidea interesatzen zaizkio bereziki, eta hainbat lan estreinatu ditu, Jesús Torres, Gabriel Erkoreka, José María Sánchez-Verdú, Alberto Iglesias eta beste hainbatek berariaz beretzat idatzia.

Formado con R. Levitt y R. Jacobs en la Schola Cantorum Basiliensis, ha desarrollado su carrera solística bajo la batuta de maestros como M. Corboz, P. Goodwin, M. Minkowsky, R. Frübeck de Burgos, O. Dantone, J. Mena, G. Leonhardt, C. Coin, P. Goodwin, A. Marcon... cantando en festivales y salas como Musikverein y Konzerthaus de Viena, Barbican Center de Londres, Palais de Beaux Arts de Bruselas, Felsenreitschule y Grosses Festspielhaus de Salzburgo, Philharmonie de Berlin, Concertgebouw de Ámsterdam, City Opera Hall de Tokio, Osaka Shympony Hall, Schönberg Hall de Los Ángeles, Alice Tully Hall del MET de Nueva York, Kennedy Center y Library of Congress de Washington, Sidney Opera House, Concert Hall de Melbourne, Bellas Artes de Ciudad de México o Teatro Colón de Buenos Aires.

Sus más de 40 grabaciones para Harmonia Mundi, Mirare, Deutsche Gramophon, Sony Music y Glossa han recibido numerosos premios como Diapasón D'Or de l'année 2002, Mejor disco de Renacimiento 2004 de CD Compact, Clásica, 10 Repertoire, Choc de Le Monde de la Musique, Excepcional de Scherzo o ffff de Telerama. Está interesado en el repertorio de lied y en el contemporáneo, estrenando obras que han escrito para él Jesús Torres, Gabriel Erkoreka, José María Sánchez-Verdú, Alberto Iglesias, etc...



Hegiak



Elena Martínez de Murguía

Elena Martínez de Murguía

Donostian jaioa, Elena Martínez de Murguía Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kide titularra da (beso-biola) 1982. urteaz geroztik. Bereziki interesatzen zaio antzinako musika, eta, interes horrek bultzatuta, viola da gama ikasi zuen Toulouseko Kontserbatorioan, Philippe Pierlot eta Coen Engelhart-en eskoletan; goreneko kalifikazioekin lortu zuen bertan diploma. Ondoren, Jaap ter Linden-ekin osatu zituen ikasketak, hainbat ikastarotan. Ensemble Diatessaron taldearen zuzendaria da, musika historikoan espezializatua eta jatorrizko musika-tresnak jotzen dituen.

Hegiak

Hegiak bazterra, ertza, muga esan nahi du; bereizi eta, aldi berean, lotu egiten duena. Euskaldunak dira, Atlantikoa eta Pirinio mendiak elkartzen diren herrialdekoak. Perkusionistak eta abeslariak dira, eta denak datoz euskal musikaren tradizioetik. Gogo biziz lantzen dute beren artea, eta asertibitatea da beren balio nagusia. Antzinako kulturaren eta gaur egungoaren arteko elkarriketa harmonizatzen dute. Beren proposamenean, jatorrizkoaren funtsa bilatzeko kezka hautematen da. Hegiak taldeak Katia eta Marielle Labèquerekin jarduten du elkarlanean, 2017. urteaz geroztik. *Basque Ravel Bolero* izan da lankidetzaz horren lehenengo emaitza, eta oso kritika onak jaso ditu European. *Amoria* proiektua da musikari hauen hurrengo erronka: XVI. mendean geroztik gaur egun arteko euskal musikaren atzera begirakoa. Horrez gainera, taldeak Alemaniako SHMF 2017 jaialdian bakarka izandako arrakastaren ondoren (“Music of labour” programa), fase esperimental bati ekin dio, errepertorio berezia eta propioa sortzeko helburuarekin.

Nacida en San Sebastián, Elena Martínez de Murguía es miembro titular (viola de brazo) de la Orquesta Sinfónica de Euskadi desde 1982. Su interés por la música antigua le lleva a trabajar la viola de gamba en el Conservatorio de Toulouse, en la clase de Philippe Pierlot y Coen Engelhart, obteniendo el diploma con las máximas calificaciones. Posteriormente perfecciona estudios en diversos cursos con Jaap ter Linden. Es directora del grupo Ensemble Diatessaron, especializado en música histórica interpretada con instrumentos originales.

En euskara *Hegiak* significa orilla, arista, esquina, borde; lo que separa y une a la vez. Son de Euskal Herria (País Vasco), un país donde se unen el Atlántico y los Pirineos. Son percusionistas, cantantes y todos provienen de la tradición musical vasca. Practican su arte con entusiasmo y hacen de la asertividad su valor central. Armonizan un diálogo entre la cultura ancestral y la actual. En su propuesta, se palpa una preocupación por la búsqueda de la esencia de lo primitivo. Hegiak colabora con Katia y Marielle Labèque desde 2017. *Basque Ravel Bolero*, la primera de estas colaboraciones, ha sido muy bien recibida por la crítica europea. El proyecto *Amoria*, una retrospectiva de la música vasca desde el siglo XVI hasta la actualidad, es el siguiente desafío para estos músicos. Además, tras el éxito del grupo en solitario (programa “Music of labour”) en el festival SHMF 2017 de Alemania, el grupo ha abierto una fase experimental para crear un repertorio original y propio.



Easo Eskolania

1992an sortu zen, Easo Abesbatzaren barruan. Soil-soilik mutilen ahotsez osatua da. Antzinako musikan espezializatua denez, Discantus eta Alla Francesca taldeen gisako taldeekin lan egin du, baina, horrez gainera, moldaerraztasun handikoa taldea da eta izen handiko jaialdietan parte hartu du: Bordeleko Vive Voix, Donostiako Musika Hamabostaldia, Santanderreko Nazioarteko Jaialdia, Parisko Festival d'Art Sacré, ABAOren denboraldia...

Creada en 1992 dentro del Coro Easo, está integrada exclusivamente por niños varones. Debido a su especialización en música antigua, ha podido trabajar con conjuntos como Discantus o Alla Francesca, pero su gran versatilidad le ha permitido participar también en festivales de gran renombre: De Vive Voix de Burdeos, Quincena Musical de San Sebastián, Festival Internacional de Santander, Festival d'Art Sacré de París, temporada ABAO...

Araoz Gazte Abesbatza

Easo Abesbatzaren bostgarren talde gisa sortu zen, eta 12 eta 17 urte bitarteko neskek osatzen dute. Hasieratik beretik, jaialdi musiko-koraletan parte hartu du (Miramongo Matinéas, Festival Musique en Côte Basque, Burgosko Ciclo Cultural Cordón), eta era askotako proiektuetan parte hartu du, hala nola operetan ("La Gioconda", "La Bohème") eta grabazioetan (BSO "Museo", "Amoria"). Horri guztiari esker, musikari eta orkestra handiekin batera jardun du.

Surge como la quinta agrupación del Coro Easo y está formada por chicas entre 12 y 17 años. Desde sus inicios ha alternado conciertos en festivales músico-corales (Matinéas de Miramón, Festival Musique en Côte Basque, Ciclo Cultural Cordón de Burgos...) con la participación en proyectos de diversa índole, como óperas ("La Gioconda", "La Bohème") y grabaciones (BSO "Museo", "Amoria"), lo que le ha permitido trabajar con grandes músicos y orquestas.



Albiste
Zerbitzuak

Servicios
Informativos

**LIDERRAK
ZURI ESKER**

**LÍDERES
POR TI**

